Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2026-07-10
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-07-23
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00073/2026 - Data/Fecha: 2026-07-23
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-07-23
GZko 2.gaia onartuta - Aprobado, asunto 2) de OD



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** zeinaren bidez onesten baitira Datu Kazetaritzako Erronkaren 2026ko Sarien oinarri arautzaileak eta deialdia

I

Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko jarduketatzat dauka datuaren kultura, berrikuntza eta teknologia bultzatzea, alor horiek Bizkaiko garapen ekonomikoaren ardatz egituratzaileak direnez gero. Lehentasun hori gauzatze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak, beste jarduketa batzuen artean, bere datu-gobernantzarako estrategia eta eredua ezarri ditu interoperabilitatea sustatzeari begira eta datu-analisiak gidatutako antolaketa-kultura bat bultzatze aldera, foru-zerbitzu publikoak hobetzeko funtsezko tresna delako uste osoan, ahaztu gabe betiere bermatu behar dela datuen erabilpen etiko, seguru eta arduratsua.

Estrategia horren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduketa-ildo garatzen ditu, hala nola datu irekien politika bultzatzea, datuetan oinarritutako zerbitzu berriek sustatzea, datu irekien berrerabilpena sostengatzea eta kultura-eragileei laguntzeko estrategiak babestea.

Testuinguru horretan, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak zenbait ekimen sustatu ditu Open Data Bizkaia atariko datu irekien berrerabilpena sustatzeko. Ekimen horien artean, nabarmentzekoa da Datu Kazetaritzako Erronkaren 2025eko Sarien deialdia, datu publikoen kazetaritzako proiektuen bidez datuak berrerabiltzen laguntzera bideratua. Helburua zen, Open Data Bizkaian eskuragarri dagoen informazioaren analisitik abiatuta, gaurkotasuna era argi eta herritarrek ulertzeko moduan esplikatzera bideratutako datu-bistaratzeak eta -tratamenduak eskaintzea.

Jarduketa-ildo hori sendotu eta bultzatzeko xedez, foru-dekretu honen bidez onesten dira Datu Kazetaritzako Erronkaren 2026ko Sarien oinarri

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA,** por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de los Premios al Reto de Periodismo de Datos 2026.

I

La Diputación Foral de Bizkaia ha definido como una de sus actuaciones prioritarias el impulso de la cultura del dato, la innovación y la tecnología como ejes vertebradores de desarrollo económico de Bizkaia. Esta prioridad se concreta, entre otras actuaciones, en el establecimiento de una estrategia y un modelo de gobernanza de datos orientados a fomentar la interoperabilidad e impulsar una cultura organizativa guiada por el análisis de datos como instrumento esencial para la mejora de los servicios públicos forales, asegurando, en todo caso, el uso ético, seguro y responsable de los datos.

En el marco de dicha estrategia, la Diputación Foral de Bizkaia desarrolla diversas líneas de actuación, entre las que destacan el impulso de la política de datos abiertos, la promoción de nuevos servicios basados en datos, el fomento de la reutilización de los datos abiertos y el impulso de estrategias de apoyo a los agentes culturales.

En este contexto, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales ha promovido iniciativas dirigidas a potenciar la reutilización de datos abiertos del portal Open Data Bizkaia, entre las que destaca la convocatoria de los Premios al Reto de Periodismo de Datos 2025. Su objetivo fue fomentar la reutilización de los datos mediante proyectos de periodismo de datos que, a partir del análisis de la información disponible en Open Data Bizkaia, ofrecieran visualizaciones y tratamientos orientados a explicar la actualidad de una forma clara y comprensible para la ciudadanía.

Con el objetivo de consolidar e impulsar esta línea de actuación, mediante el presente Decreto Foral se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de los Premios al Reto de Periodismo de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arautzaileak eta deialdi publikoa.

II

Foru Dekretu hau izapidetzeko eta onartzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta horrekin bat datorren araudian ezarritako irizpideak jarraitu dira. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Foru Dekretu hau onartzeko eskumena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 15., 17., 63. eta 64. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 13ko 63/2024 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua, sail horretako Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari esleitzen dio foru-sektore publikoaren datu irekien politika zuzentzea, koordinatzea eta, datuetan oinarritutako jarduerak bultzatuz, sustatzea.

Era berean, sail horretako Aholkularitza Teknikorako Atalari esleitzen dio herritarren eskura jarritako datu irekin erabilera eraginkorrerako ekimenak bultzatzea eta sustatzea.

Foru dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta

Datos 2026.

II

La tramitación y aprobación del presente Decreto Foral ha seguido los criterios establecidos en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en la normativa concordante. En este sentido, la competencia para la aprobación del presente Decreto Foral corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con las atribuciones previstas en los artículos 15,17,63 y 64 de la aludida Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Concretamente, el Decreto Foral 63/2024, de 13 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, atribuye a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales la dirección, coordinación e impulso de la política de datos abiertos del sector público foral, promoviendo la realización de actividades basadas en datos.

Asimismo, atribuye a la Sección de Asesoramiento Técnico de este departamento el impulso y fomento de iniciativas para el uso efectivo de los datos abiertos puestos a disposición de la ciudadanía.

III

El presente decreto foral se ajusta a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.

2. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

6. Klima-inpaktuaren ebaluazio-txostena.

Era berean, jasotzen du genero-ikuspegia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat. Horrez gainera, kontuan hartu da arau horren 25. Artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, non jasotzen baitira genero-inpaktuari buruzko aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak; ebaluazio hori, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak aurreikusten du.

Ildo beretik, dekretua prestatzeko, kontuan hartu da zer xedatzen den 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

IV

Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak eta haien jardun-arloak eta eginkizunak ezartzen dituen Ahaldun Nagusiaren uztailaren 6ko 169/2023 Foru Dekretuan (ondoren Bizkaiko Foru Aldundiaren 2023ko uztailaren 7ko Foru Erabakiaren bidez baliozkotua, gai-zerrendako 4. gaia), eta, Herri Administraziorako

observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar de impacto de género.

2. Informe jurídico del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

6. Informe de evaluación de impacto climático.

Asimismo, incorpora la perspectiva de género tal y como se señala en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Igualmente, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el artículo 25 de dicha norma, así como en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se establecen las directrices para la realización de la evaluación previa de impacto en función del género, prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

En el mismo sentido se ha tenido en cuenta en la elaboración de este decreto lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 18 de mayo, que establece los criterios de uso de las distintas lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

IV

De acuerdo con lo recogido en el Decreto Foral 169/2023, de 6 de julio, de la Diputada General por el que se establecen los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones, convalidado posteriormente mediante Acuerdo Foral de la Diputación Foral de Bizkaia

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta Erakunde Harremanetarako sailaren egitura organikoaren Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 13ko 63/2024 Foru Dekretuan jasotakoaren arabera, datu irekien politika bultzatzeko eginkizunak Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari esleitzen zaizkio.

(Asunto 4, de OD) de fecha 7 de julio de 2023; y en el Decreto Foral 63/2024, de 13 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, las funciones de impulso de la política de los datos abiertos se atribuyen al Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico. Por su parte, el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la citada Norma Foral, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, correspondiendo al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari dagokio foru dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de Decreto Foral en las materias propias de su departamento. Así, en el presente caso corresponde al Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales proponer este proyecto de decreto foral.

Hori dela bide, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, hau

En su virtud, a iniciativa del Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Artículo Único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria,*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Onartzen dira 2026ko Datuen Kazetaritzaren Erronkarako Sarien oinarri arautzaileak eta deialdia; testua jarraian jasotzen da.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de los Premios al Reto de Periodismo de Datos 2026, cuyo texto se incluye a continuación.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

DISPOSICIONES FINALES:

Amaierako lehen xedapena. *Ahalmenak ematea.*

Disposición Final Primera. *Habilitación de facultades.*

1.- Ahalmena ematen zaio Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuari foru dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1.- Se faculta al Diputado Foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako kasua gertatzen bada, edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada, foru agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko.

2. Asimismo, se faculta al Diputado Foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta al Diputado Foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Amaierako bigarren xedapena. *Indarrean jartzea*.

Disposición Final Segunda. *Entrada en vigor*.

Dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Ahaldun Nagusia/ La Diputada General,

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua / El Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

AGER IZAGIRRE LOROÑO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

DATU-KAZETARITZAKO ERRONKAREN 2026KO SARIEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE LOS PREMIOS AL RETO DE PERIODISMO DE DATOS 2026

AURKIBIDEA

ÍNDICE


I. TITULUA. **Xedea.**

TÍTULO I. **Objeto**

1. oinarria. Erronkaren xedea.

Base 1. Objeto del reto.

2. oinarria. Onuradunak.

Base 2. Personas beneficiarias.

II. TITULUA. **Araubide juridikoa.**

TÍTULO II. **Régimen jurídico.**

3. oinarria. Aplikatu beharreko araudia.

Base 3. Normativa aplicable.

4. oinarria. Arau-hausteak eta zehapenak.

Base 4. Infracciones y sanciones.

III. TITULUA. **Prozedura.**

TÍTULO III. **Procedimiento.**

5. oinarria. Eskabideak eta proiektuak aurkezteko lekua eta epea.

Base 5. Lugar y plazo de presentación de las solicitudes, junto con los proyectos.

6. oinarria. Eskabide-eredua eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Base 6. Modelo de solicitud y documentación a acompañar a la solicitud.

7. oinarria. Datuak eta egiazta daitekeen dokumentazioa.

Base 7. Datos y documentación verificable.

8. oinarria. Eskabideak zuzentzea.

Base 8. Subsanación de solicitudes.

9. oinarria. Saria emateko prozedura.

Base 9. Procedimiento de concesión.

10. oinarria. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak.

Base 10. Criterios de valoración de los proyectos.

11. oinarria. Aholkularitza.

Base 11. Asesoramiento.

12. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen osaera.

Base 12. Composición del tribunal calificador.

13. oinarria. Ebazpena.

Base 13. Resolución.


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

14. oinarria. Sariak.

IV. TITULUA **Sarien kudeaketa.**

15. oinarria. Sarien banaketa.

16. oinarria. Sarien ordainketa.

17. oinarria. Saria onuradunaren borondatez itzultzea.

18. oinarria. Jabetza intelektuala.

19. oinarria. Saridunen betebeharrak.

20. oinarria. Itzulketa.

21. oinarria. Datu pertsonalen babesa.

22. oinarria. Aurrekontuko partida.

## I.TITULUA

## Xedea

1. oinarria. Erronkaren xedea.

1.- Datu-kazetaritzako proiektuak aurkeztean datza erronka.

Proiektuak nahitaez oinarritu beharko dira Open Data Bizkaia atarian eskuragarri dauden datuen erabileran eta analisian. Datuak orobat ekarri ahal izango dira datu irekiak eskaintzen dituzten beste atari batzuetatik edo sarbide publikoko beste informazio-iturri batzuetatik, betiere informazio nagusia osatzeko badira.

Datu horien analisitik abiatuta, proiektuetan eskaintzen diren informazio-bistaratzeek eta -tratamenduek posible egin behako dute albisteak era argian, ulergarrian eta herritarrek erraz eskuratzeko moduan esplikatzea.

2. Dekretu hau dela-eta eratutako epaimahai batek ebaluatu egingo ditu aurkeztutako lanak, eta proiektu irabazleak proposatuko ditu. Sari ekonomiko bat

Base 14. Premios.

TÍTULO IV. **Gestión de los premios.**

Base 15. Entrega de premios.

Base 16. Pago de los premios.

Base 17. Devolución a iniciativa de la perceptora.

Base 18. Propiedad intelectual.

Base 19. Obligaciones de las personas premiadas.

Base 20. Reintegro.

Base 21. Protección de datos de carácter personal.

Base 22. Partida presupuestaria.

## TÍTULO I

## Objeto

Base 1. Objeto del reto.

1. El reto consiste en la presentación de proyectos de periodismo de datos.

Los proyectos deberán basarse obligatoriamente en el uso y análisis de datos disponibles en el portal Open Data Bizkaia. Asimismo, podrán incorporarse datos procedentes de otros portales de datos abiertos u otras fuentes de información de acceso público, siempre que complementen la información principal.

A partir del análisis de esos datos, los proyectos deberán ofrecer visualizaciones y tratamientos de la información que permitan explicar las noticias de forma clara, comprensible y accesible para la ciudadanía.

2. Un tribunal constituido al efecto valorará los trabajos presentados y propondrá los proyectos ganadores, a los cuales se les otorgará un premio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

emango zaie irabazleei.

3. Erronkak hiru kategoria ditu:

a) Datu-bistaratzea.

Sarituko diren proiektuek originalak behar dute eta helburu nagusitzat izango dute datuak ustiatzea eta ulertaraztea bistaratze grafiko estatikoak edo interaktiboak baliatuta, hala nola infografiak, mapak, dashboardak edo antzeko beste formatu batzuk. Kanpoan geratzen dira ardatz nagusitzat kazetaritza-narrazioa (erreportajea, albiste luzea, etab.) duten lanak eta ikus-entzunezko formatua.

b) Datuetan funtsatutako narratiba audiobisuala.

Sarituko diren piezek originalak behar dute eta datuen ikusizko esplorazioan zentratuko dira fenomenoak esplikatzeko eta narratiba bat eraikitzeko, ikus-entzunezko storytelling animatuko tresnak erabiliz, hala nola Whiteboard Animation (arbeleko bideoa), Motion Graphics (mugimendu-grafikoak), Kinetic Typography, 2D Character Animation eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk. Gutxienez minutu eta erdi iraungo du; inola ere ez 5 minututik gora. Kanpoan geratzen dira ikus-entzunezko garapen narratiborik gabeko bistaratze interaktiboak eta idatzizko edo web-formatuko erreportajeak.

c) Datuetan oinarritutako kazetaritza-ikerketa.

Sarituko diren kazetaritza-lanek originalak behar dute eta datuak elementu zentraltzat erabiliko dituzte interes publikoko fenomeno bat ikertu, testuinguruan jarri eta esplikatzeko. Testu-formatuan (Word, PDF) edo web-formatuan (webgune edo web-orri irekia) egituratutako narratiba bat erabiliko dute horretarako. Kanpo geratzen dira kazetaritza-garapenik ez duten eta datuen bistaratze edo irudikapenetan soilik dautzan proiektuak. Gutxienez 1.500 hitzeko luzera gomendatzen da.

4.- Parte-hartzaileek kategoria batean edo gehiagotan aurkeztu ahalko dituzte proiektuak. Hala ere, proiektu

económico.

3. El reto consta de tres categorías:

a) Visualización de datos.

Se premiarán proyectos originales cuyo objetivo principal sea la explotación y comprensión de datos mediante visualizaciones gráficas estáticas o interactivas, tales como infografías, mapas, dashboards u otros formatos similares. Quedan excluidos aquellos trabajos cuyo eje principal sea la narración periodística (tipo reportaje, noticia extensa, etc.) o el formato audiovisual.

b) Narrativa audiovisual sustentada en datos.

Se premiarán piezas originales centradas en la exploración visual de datos para explicar fenómenos y construir una narrativa mediante herramientas de storytelling audiovisual animado del estilo de Whiteboard Animation (Vídeo de Pizarra), Motion Graphics (Gráficos de movimiento), Kinetic Typography, 2D Character Animation u otras de similares características. La extensión será de, al menos, minuto y medio, no superando en ningún caso los 5 minutos. Quedan excluidas las visualizaciones interactivas sin desarrollo narrativo audiovisual y los reportajes en formato escrito o web.

c) Investigación periodística basada en datos.

Se premiarán trabajos periodísticos originales que utilicen datos como elemento central para investigar, contextualizar y explicar un fenómeno de interés público mediante una narrativa estructurada en formato textual (Word, pdf) o web (sitio o página web en abierto). Quedan excluidos los proyectos consistentes exclusivamente en visualizaciones o representaciones de datos sin desarrollo periodístico. Se recomienda una extensión, al menos, de 1500 palabras.

4. Las personas participantes podrán presentar proyectos en una o varias categorías. No obstante,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bakoitza, bere elementu nagusiaren arabera, kategoria bakarrera aurkeztu ahal izango da.

cada proyecto solo podrá presentarse a una categoría en función de su elemento principal.

Zalantzarik izanez gero, antolakuntzak dagokion kategoria zehaztuko du proiektuaren helburu nagusia kontuan hartuta: datuen esplorazioa, ikus-entzunezko narrazioa edo kazetaritza-ikerketa.

En caso de duda, la organización determinará la categoría correspondiente atendiendo al propósito principal del proyecto: exploración de datos, narración audiovisual, o investigación periodística.

5.- Epaimahai kalifikatzaileak egokitzat jotzen badu, parte-hartzaile bera irabazle izan daiteke erronkaren kategoria batean, batzuetan edo guztietan.

5. Si el tribunal calificador lo considera oportuno, una misma persona participante podrá resultar ganadora en una, varias o todas las categorías del reto.

2. oinarria. Onuradunak

Base 2. Personas beneficiarias

1.- 18 urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahalko dira erronkara. Bete behar dituzten baldintzak 12. artikuluan ezartzen ditu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 18 urte beteta eduki beharko dituzte.

1. Podrán presentarse al reto las personas físicas, mayores de 18 años que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. Se deberá tener 18 años cumplidos en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Erronka datu irekietan interesa dutenentzat da, besteak beste profil hauentzat: ikasleak, ekintzaileak, garatzaileak, diseinatzaileak eta kazetariak.

El reto está dirigido, entre otros perfiles, a estudiantes, personas emprendedoras, personas desarrolladoras, profesionales del diseño y periodistas con interés en los datos abiertos.

2. Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan duten pertsonek ezin izango dute parte hartu deialdi honetan, zehapenean ezarritako epean. Halaber, ezin izango dute parte hartu honako arau hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek: 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

2. Quedarán excluidas de esta convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, aquellas personas sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo así como quienes incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3. Parte-hartzaileek banaka edo taldeka eman ahal

3. Las personas participantes podrán inscribirse de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izango dute izena. Taldeak 4 lagunekoak izango dira gehienez.

forma individual o grupal, en equipos de hasta 4 personas.

## II. TITULUA

### Araubide juridikoa

3. oinarria. Aplikatu beharreko araudia

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Dirulaguntzen Erregelamendua, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein arau-xedapen.

4. oinarria. Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

## III. TITULUA

### Prozedura

5. oinarria. Eskabideak eta proiektuak aurkezteko

## TÍTULO II

### Régimen jurídico

Base 3. Normativa aplicable

Para todos aquellos aspectos no incluidos en el presente Decreto Foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral; el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia; la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público; el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica; el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad; la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Base 4. Infracciones y sanciones

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de la misma.

## TÍTULO III

### Procedimiento

Base 5. Lugar y plazo de presentación de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lekua eta epea.

1. Eskabideak leku hauetakoren batean aurkeztu ahal izango dira, aurrez aurre, proiektuekin batera:

a) Erregistro Orokorrean – Bizkaiko Foru Aldundiko Laguntza bulegoa, Diputazioa kalea 7, 48008, Bilbo (Bizkaiko Foru Liburutegiaren eraikineko beheko solairua).

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren beste edozein erregistrotan.

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bulegoetan (beste erregistro publiko batzuk eta posta-bulegoak).

2. Horrez gainera, eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira: https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

3. Pertsona batek baino gehiagok batera aurkeztutako eskaeretan parte hartzaile guztiak identifikatuko dira. Ordezkari legez agertzen denak sinatuko du soilik.

Pertsona horrek Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean jardungo du elkartearen izenean, eta deialditik eratorritako kudeaketez eta betebeharrez arduratuko da.

4. Eskabideak eta proiektuak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da; amaitu, berriz, 2026ko

solicitudes, junto con los proyectos.

1. Las solicitudes, junto con los proyectos, podrán ser presentadas presencialmente en alguno de los siguientes lugares:

a) En el Registro General – Oficina Laguntza de la Diputación Foral de Bizkaia, situada en la calle Diputación 7, 48008, de Bilbao (planta baja del edificio de la Biblioteca Foral de Bizkaia).

b) En cualquier otro registro de la Diputación Foral de Bizkaia.

c) En cualquiera de las oficinas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (otros registros públicos y oficinas de Correos).

2. También podrán ser presentadas las solicitudes a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia: https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

En el “catálogo de trámites” de la sede electrónica se encuentra publicado el presente Decreto Foral.

3. Las solicitudes presentadas conjuntamente por varias personas deberán identificar a todas las integrantes de la agrupación y estarán firmadas únicamente por la persona que actúe como representante.

Esta persona actuará ante la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales en nombre de la agrupación y será responsable de las gestiones y obligaciones derivadas de la convocatoria.

4. El plazo de presentación de las solicitudes, junto con los proyectos, se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará el 20 de noviembre de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

azaroaren 20an, 13:00etan.

6. oinarria. Eskabide-eredua eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoaren arabera. Egoitza elektronikoan eskuratu eta aurkeztu ahal dira: https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Gainerako kasuetan (paperean aurkeztutako eskabideak), Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren webgunean eskuratu ahal den eredu ofizialean aurkeztu beharko dira eskabideak, behar bezala beteta: https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

3.- Eskabidearekin, proiektuaren dokumentazio tekniko labur bat aurkeztuko da, eta bertan:

- Erabilitako datuen jatorrizko multzoa (dataset) jasoko da; halakorik ezean, datuak nondik datozen eta nola eskura daitezkeen adieraziko da.

- Labur deskribatuko da zer motatako lan-prozesua erabili den datuekin (lorpena, hautapena, analisia, etab.), bai eta datuak tratatu, analizatu edo bistaratzeko erabilitako tresnak eta/edo teknikak ere.

Dokumentazio horren faltan, datuak zehaztasunez erabiltzeko irizpidearen balorazioa mugatu ahalko da.

- Eskabidea ordezkari baten bidez aurkezten bada, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da ordezkaritza hori.

7. oinarria. Datuak eta egiazta daitekeen dokumentazioa.

1. Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez,

2026 a las 13:00h.

Base 6. Modelo de solicitud y documentación a acompañar a la solicitud.

1. Las solicitudes presentadas a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia deberán ajustarse a los modelos oficiales de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica: https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. En los demás casos (solicitudes presentadas en formato papel), las solicitudes se deberán presentar en el modelo oficial debidamente cumplimentado y accesible a través de la página web de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia. https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

3. Las solicitudes deberán acompañarse de una breve documentación técnica del proyecto que incluye:

- El conjunto de datos original (dataset) utilizados o, en su defecto, la indicación de su procedencia y forma de acceso.

- Breve descripción del tipo de proceso de trabajo con los datos (obtención, selección, análisis, etc.) así como de las herramientas y/o técnicas empleadas para el tratamiento, análisis o visualizaciones de los datos.

La ausencia de esta documentación podrá limitar la valoración del criterio de rigor en el uso de los datos.

- En el caso de presentar solicitud mediante representante, la representación deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

Base 7. Datos y documentación verificable.

1. La Dirección General de Buen Gobierno, Atención

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei eta haien ordezkariei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, pertsona horiek modu espresuan kontra daudela adierazten ez badute. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Aurreko guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

Hauek dira datu horiek:

a) Banku-kontuaren titulartasunari buruzko datuak.

Eskatzaileak ez badu nahi Administrazioak bere kabuz egiaztatzea bankuko datu horiek, banku-helbideratzearen fitxa aurkeztu beharko du, behar bezala beteta, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu ofizialean edo web-orriaren bidez: https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

b) Tributu-betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea

2. Arrazoi teknikoak direla-eta ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak izapideak egiteko beharrezko diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu

3. Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak

Ciudadana y Servicios Digitales, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas interesadas y sus representantes que resulten necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes, todo ello al amparo del artículo 28.2 de la Ley 39/2015.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En el caso de que la persona solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada en el modelo oficial disponible en la sede electrónica o a través de la página web: https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

b) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias.

c) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la seguridad social.

2. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales podrá requerir datos o documentos necesarios para su tramitación.

3. Cualquier acceso a dichos datos se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo; así como en lo establecido en la Ley

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

8. oinarria. Eskabideak zuzendu edo hobetzea.

Base 8. Subsanación o mejora de solicitudes.

Eskabideak ez badira oso-osorik formalizatzen edo foru-dekretu honetan eskatutako agirietako bat falta bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari akatsa zuzendu dezan edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan hamar (10) egun balioduneko epean. Horrez gainera, ohartaraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurretik ebazpen espresua eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición previa resolución expresa en tal sentido, conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiaren Aholkularitza Teknikorako Atalak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

La Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

9. oinarria. Saria emateko prozedura.

Base 9. Procedimiento de concesión.

Sariak norgehiagoka-sistemaren bitartez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, haien artean lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, 10. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta.

La concesión de los premios se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de los proyectos presentados, a fin de establecer una prelación entre los mismos, de acuerdo con los criterios de valoración fijados en la base 10.

10. oinarria. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak.

Base 10. Criterios de valoración de los proyectos.

1.- Ezarritako epean aurkeztutako eskabideen ebaluazioa egingo du deialdi honetarako izendatutako epaimahai kalifikatzaileak. Epaimahaiaren balorazioaren arabera puntuazio handiena lortzen duten proiektuei emango zaizkie sariak. Horretarako, kontuan hartuko da proiektu bakoitza nola gauzatu eta aurkeztu den, kategoria bakoitzerako zehaztutako

1. El tribunal calificador designado para esta convocatoria evaluará las solicitudes presentadas dentro del plazo establecido. Los premios se otorgarán a los proyectos que obtengan mayor puntuación, según la valoración del tribunal. Para ello, se tendrán en cuenta la calidad de la ejecución y de la presentación de cada proyecto, conforme a los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

irizpideen arabera.

Kategoria: Datu-bistaratzea.

Ebaluazio-irizpideak

- Dinamismo-maila: % 25
- Datuen kalitatea eta ulermena: % 25
- Datuen zehaztasuna eta kalitatea: % 25
- Berrikuntza errepresentazioan % 15
- Diseinua eta erabilgarritasuna: % 10

Kategoria: Datuetan funtsatutako narratiba audiobisuala.

Ebaluazio-irizpideak

- Egitura eta narratiba (baliabide bisualen erabilpen diskurtsibo eta adierazkorra): % 30
- Inpaktua eta kalitate estetikoa: % 30
- Argitasun esplikatiboa: % 25
- Datuak zehaztasunez erabiltzea: % 15

Kategoria: Datuetan oinarritutako kazetaritza-ikerketa

Ebaluazio-irizpideak

- Informazio-helburua eta ikuspegia: % 25 Ikerketan, azalpen-argitasunean eta sakontasun analitikoan funtsatutako narrazioa.
- Datuen integrazioa narratiban: % 20 Kontakizunaren barruan datuak era koherente eta justifikatuan erabiltzea.
- Kazetaritza- eta narrazio-kalitatea: % 20 Egitura, idazketa eta estiloa.
- Erabilitako iturriak (% 25). Tratamenduaren

criterios definidos para cada categoría.

Categoría: Visualización de datos.

Criterios de valoración

- Nivel de dinamismo: 25%
- Calidad y comprensión de los datos: 25%
- Rigor y calidad en los datos: 25%
- Innovación en la representación: 15%
- Diseño y usabilidad: 10%

Categoría: Narrativa audiovisual sustentada en datos.

Criterios de valoración

- Estructura y narrativa (uso discursivo y expresivo de recursos visuales): 30%
- Impacto y calidad estética: 30%
- Claridad explicativa: 25%
- Rigor en el uso de datos: 15%

Categoría: Investigación periodística basada en datos

Criterios de valoración

- Propósito informativo y enfoque: 25%. Narración sustentada en investigación, claridad expositiva y profundidad analítica.
- Integración de los datos en la narrativa: 20%. Uso coherente y justificado de los datos dentro del relato.
- Calidad periodística y narrativa: 20%. Estructura, redacción y estilo.
- Fuentes empleadas: 25%. Relevancia, rigor y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

garrantzia, zehaztasuna eta egokitasuna.

- Interes publikoa eta inpaktu soziala: % 10

2. Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako proiektuek ez badituzte betetzen hautatuak izateko ezarritako baldintzak edo behar besteko puntuazioa lortzen ez badute.

3. Epaimahaiak ahalmena du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzen ez duten proiektuak baztertzeko, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenetan xedatutakoarekin bat.

11. oinarria. Aholkularitza.

Foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak.

12. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen osaera.

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Diego Álvarez Meaza, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Ataleko burua.

- Ainara Larrondo Ureta, Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Saileko irakasle titularra.

adecuación en el tratamiento.

- Interés público e impacto social: 10%

2. El premio podrá ser declarado desierto, si ninguno de los proyectos presentados reúne, según criterio del tribunal, los requisitos exigidos para su selección o si su valoración resulta insuficiente.

3. El tribunal calificador tiene potestad para excluir aquellos proyectos que no respeten la igualdad entre hombres y mujeres conforme a lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y demás disposiciones legales vigentes.

Base 11. Asesoramiento.

La Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta referida al presente Decreto Foral.

Base 12. Composición del tribunal calificador.

1. El tribunal calificador, de conformidad con lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres, estará compuesto por:

- Diego Álvarez Meaza, jefe de la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Ainara Larrondo Ureta, profesora titular de departamento de periodismo de la Euskal Herriko Unibertsitatea.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Simón Peña Fernández, Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Saileko irakasle titularra.

- Simón Peña Fernández, profesor titular del departamento de periodismo de la Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Rosa Mª Río Belver, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea.

- Rosa Mª Río Belver, profesora e investigadora de la Euskal Herriko Unibertsitatea.

13. oinarria. Ebazpena

Base 13. Resolución

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, deialdi honetan, interesdunei ez zaie emango lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eta, gero, entzunaldiaren izapidea, prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jasoko eta kontuan hartuko.

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak egiaztatuko du irabazle izateko proposatutako pertsonek ea egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntzak itzuli behar dituztela-eta. Egiaztapena egin ondoren, ikusten bada betebehar horietako edozein ez dutela betetzen, errekerimendua egingo zaie hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezaten, eta ohartaraziko zaie, horrela egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales comprobará que las personas propuestas como ganadoras se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y que no son deudoras por reintegro de subvenciones. Si, como consecuencia de tal comprobación, resultare que incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación, con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuta. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de tres meses, a contar desde la finalización del plazo para la presentación de solicitudes. La resolución será dictada por el Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta de la resolución del Tribunal Calificador.

Epe hori igarota ez bada ebazpen espresurik eman eta jakinarazi, eskabidea ezetsitzat joko da. Hala ere,

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. Deialdi hau ebazten duen foru-aginduaren posta ziurtatuaren bidez jakinaraziko zaie deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei, salbu eta eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, zeinei egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

4. La Orden Foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada mediante correo certificado a las personas interesadas que hayan presentado la solicitud a los efectos de esta convocatoria, salvo a aquellas que hayan presentado su solicitud a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, a quienes se les notificará mediante el sistema de comparecencia en dicha sede.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakeela foru-agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante el Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

5. Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. La relación de las personas premiadas será publicada mediante anuncio en el <Boletín Oficial de Bizkaia>.

14. oinarria. Sariak

Base 14. Premios

1. Sariek ondoren adierazten den dotazio ekonomikoa izango dute, kategoria bakoitzean:

1. Los premios consistirán en la siguiente dotación económica por categoría:

a) Kategoria: Datu-bistaratzea

a) Categoría: Visualización de datos

Lehenengo saria: 1.500 €

Primer premio: 1.500 €

Bigarren saria: 750 €

Segundo premio: 750 €

b) Kategoria: Datuetan funtsatutako narratiba audiobisuala

b) Categoría: Narrativa audiovisual sustentada en datos

Lehenengo saria: 1.500 €

Primer premio: 1.500 €

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bigarren saria: 750 €

c) Kategoria: Datuetan oinarritutako kazetaritza-ikerketa

Lehenengo saria: 1.500 €

Bigarren saria: 750 €

Aurreko apartatuan aipatutako diru-kopuruek indarrean dagoen legerian ezarritako atxikipen fiskalak izango dituzte.

2.- Erronka honetan parte hartzen duten pertsonek baimena ematen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia atarian aurkeztutako proiektuak argitaratzeko eta zabaltzeko, baina horrek ez du ekarriko ordainsari ekonomiko bat jasotzeko inolako eskubiderik aitortzea.

IV. TITULUA

Sarien kudeaketa

15. oinarria. Sarien banaketa.

Sariak horretarako egingo den ekitaldi batean emango zaizkie irabazleei. Aurretiaz emango zaie ekitaldi horren berri.

16. oinarria. Sarien ordainketa.

1. Deialdi hau ebazten duen foru-agindua jakinarazi eta hamar (10) egun balioduneko epearen barruan irabazleak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio sariari, ulertuko da onartu egin duela, eta Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak Ogasun eta Finantza Sailean izapidetuko du ordainketa; onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko horretarako.

2. Sari bakoitza ordaindu aurretik, egiaztatuko da

Segundo premio: 750 €

c) Categoría: Investigación periodística basada en datos

Primer premio: 1.500 €

Segundo premio: 750 €

A las cantidades económicas mencionadas en el apartado anterior estarán sujetas a las retenciones fiscales que corresponda conforme a la legislación vigente.

2. Las personas participantes en este reto autorizan la publicación y difusión de los proyectos presentados en el portal Open Data Bizkaia de la Diputación Foral de Bizkaia, sin que ello conlleve el reconocimiento de derecho alguno a una remuneración económica.

TÍTULO IV

Gestión de los premios

Base 15. Entrega de premios

Los premios se entregarán a las personas ganadoras en un acto celebrado al efecto, del cual se informará oportunamente.

Base 16. Pago de los premios

1. Si en el plazo de diez (10) días hábiles tras la fecha de notificación de la Orden Foral que resuelve la presente convocatoria la persona ganadora no renuncia expresamente y por escrito al premio, se entenderá que este queda aceptado, y la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

2. Previo al pago de cada uno de los premios, se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

irabazleek egunean dituztela tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

comprobará que las personas ganadoras se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no son deudoras por reintegro de subvención.

3. Egiaztapena egin ondoren ikusten bada saridunen batek ez duela betetzen betebehar horietakoren bat, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, egoera konpondu ezean, galdu egingo duela saria kobratzeko eskubidea.

3. Si, como consecuencia de la comprobación efectuada, resulta que alguna de ellas incumple algunas de las obligaciones señaladas, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación, con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho al cobro del premio.

17. oinarria. Saria onuradunaren borondatez itzultzea.

Base 17. Devolución a iniciativa de la perceptora

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onesten da), saridunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako saria, foru-erakundeak aurretik errekerimendurik egin gabe.

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la persona premiada podrá proceder a la devolución voluntaria del premio concedido por la Diputación Foral de Bizkaia sin previo requerimiento de esta última.

Halakoetan, saria benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva del premio, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. Saria saridunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren bulegoetan izapidetuko da, saridunak eskaera egin ondoren. Ordainketa-gutun horretan, honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den sariari erreferentzia eginda.

2. La devolución del premio a instancia de la propia persona premiada se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso, haciéndose además referencia al premio a devolver.

3. Saridunak dagokion zenbatekoa finantza-erakunde batean sartu ondoren, diru-sarrera horren frogagiria bidali beharko da Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu

3. Una vez practicado el ingreso del importe por la persona premiada en una entidad financiera, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso a la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalera.

18. oinarria. Jabetza intelektuala.

Deialdi honetara aurkezten diren parte-hartzaileek aitortu behar dute ideietan sartutako edukien gaineko titulartasuna dutela, bai eta behar besteko legitimazioa ere, eta adierazi behar dute ez dutela urratzen Espainian edo atzerrian hirugarren batek edukien gainean izan dezakeen jabetza intelektualaren arloko eskubiderik edo beste edozein eskubiderik, eta Bizkaiko Foru Aldundia salbuetsi egiten dutela eduki horien erabilerari lotutako edozein erantzukizunetatik. Nolanahi ere, parte-hartzaileek beren gain hartuko dituzte, beren erantzukizun esklusiboaren pean, beren ideietan jasotako edukien erabilerak eragindako kalte-galeren ondorioak, bai eta haien erreprodukzioak, hedapenak eta banaketak eragindakoak ere.

Hori dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako erantzukizunik izango proposatzen den ideiak edo proiektuak edo eskatzaileak edo eskatzaileek aurkeztutako edozein dokumentuk hirugarren pertsonen eskubideak nolabait urratzen baditu jabetza intelektuala, industriala edo bestelakoa dela-eta.

19. oinarria. Saridunen betebeharrak.

1.- Saritutako pertsonek nahitaez joan beharko dute sariak emateko ekitaldira, eta proiektua jendaurrean aurkeztu beharko dute.

Saritutako pertsona bertaratu ezin bada behar bezala justifikatutako arrazoiren batengatik, ordezkari bat izendatu ahal izango du; ordezkari horrek haren izenean joan beharko du, proiektuaren aurkezpena egin beharko du, eta ordezkaritza hori idatziz egiaztatzeko betebeharra izango du.

Saria talde bati ematen bazaio, nahikoa izango da

Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Base 18. Propiedad intelectual

Las personas participantes que concurran a esta convocatoria reconocen su dominio del título y legitimación suficiente sobre los contenidos incluidos en las ideas, manifestando no infringir ningún derecho de propiedad intelectual o cualquier otro derecho que pueda ostentar cualquier tercera persona en España o en el extranjero sobre los contenidos y, eximiendo a la Diputación Foral de Bizkaia, de cualquier responsabilidad relativa al uso de los citados contenidos. En todo caso, quienes participan asumen bajo su exclusiva responsabilidad las consecuencias de daños y perjuicios que se deriven del uso de los contenidos incluidos en sus ideas, así como su reproducción, difusión y distribución.

De este modo, no recaerá ninguna responsabilidad sobre la Diputación Foral de Bizkaia en el supuesto de que la idea o proyecto que se propone o cualquiera de los documentos presentados por la persona o personas participantes vulnere de alguna manera los derechos de terceras personas en materia de propiedad intelectual, industrial o de cualquier índole.

Base 19. Obligaciones de las personas premiadas

1. Las personas premiadas deberán asistir obligatoriamente al acto de entrega de premios y presentar públicamente el proyecto.

En el caso de que la persona premiada no pueda asistir por causa debidamente justificada, podrá designar a una persona representante, quien deberá acudir en su nombre, realizar la presentación del proyecto y acreditar dicha representación por escrito.

Cuando el premio recaiga en un grupo, bastará con la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gutxienez taldeko kide bat bertaratzea, ordezkaritza formalki izendatu beharrik gabe, betiere egiaztatzen bada taldeko kide dela. Taldeko kide batek edo batzuek aurkeztu ahal izango dute proiektua.

asistencia de al menos una de las personas integrantes del mismo, sin necesidad de designación formal de representación, siempre que quede acreditada su pertenencia al grupo. La presentación del proyecto podrá realizarse por una o varias personas integrantes del grupo.

Emate-ekitaldira joan ezean, ez bada justifikatu edo aurrez jakinarazi, saria jasotzeko eskubidea gal liteke, eta entitate antolatzaileak ahalmena izango du saria ordezko bati emateko edo eman gabe uzteko, dagokionaren arabera.

La falta de asistencia al acto de entrega sin causa justificada ni comunicación previa podrá dar lugar a la pérdida del derecho al premio, reservándose la entidad organizadora la facultad de otorgarlo a una persona suplente o declarar el premio desierto, según proceda.

20. oinarria. Itzulketa

Jasotako saria eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egin beharko dira ez badira betetzen aurreko oinarrietan ezarritako betebeharrak, edo Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru-arau hori garatzen duen erregelamenduan ezarritako kausaren bat gertatzen bada.

Base 20. Reintegro

Procederá el reintegro del premio recibido y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumpla alguna de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en su Reglamento de desarrollo.

21. oinarria. Datu pertsonalen babesa.

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

Base 21. Protección de datos de carácter personal

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

22. oinarria. Aurrekontuko partida.

Foru dekretu honetan araututako sariak, 6.750 eurokoak, 0712/491119/46200 aurrekontu-partidaren kargura egingo dira (2020/0035 gastu-proiektua, 2026eko ekitaldiko gardentasuna eta datu irekiak).

Base 22. Partida presupuestaria

Los premios regulados en este decreto foral por importe total de 6.750 euros se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria 0712/491119/46200, número de proyecto de gasto 2020/0035 Transparencia y Datos Abiertos, del ejercicio 2026.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira emandako diru-kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada,

Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan.

procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08PP-21E1-JGTV-DJWT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus